


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,1 igo dira 2024ko irailean

Urte artean, 2024ko irailean, 2023ko irailarekin alderatuta, prezioen igoera % 1,9koa izan da

2024ko irailean, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,1 igo da, aurreko hilarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. 2023ko hilabete berarekin alderatuta, kostuak % 1,9 igo dira.

Eraikingintzako kostuak % 0,2 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 0,3 jaitsi dira. 2023ko irailarekin alderatuta, aldiz, prezioak % 2,0 igo dira Eraikingintzan eta % 1,2 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilabetearekin, 2024ko abuztuarekin, alderatuta, **lehengaien** kostuak % 0,1 igo dira, eta eskulanaren kostuek, berriz, ez dute aldaketarik izan. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuaren igoera % 0,9koa izan da eta eskulanarena % 5,4koa.

Lehengaien kostua hilabeteen artean % 0,2 igo da Eraikigintzan eta % 0,4 jaitsi da Obra Zibilean. Urte arteko bilakaeran, Eraikigintzako lehengaien kostuak % 1,1 igo dira eta Obra Zibileko lehengaien kostuek, berriz, ez dute aldaketarik izan.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	129,0	0,1	1,9
Eraikinak	128,6	0,2	2,0
Obra zibila	130,9	-0,3	1,2
Lehengaiak	130,1	0,1	0,9
Eraikinak	129,6	0,2	1,1
Obra zibila	132,6	-0,4	0,0
Laneskua	125,5	0,0	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Urriaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren eta 2024ko irailean, 2023ko irailarekin alderatuta, igoerarik handienak izan dituzten lehengaiak, azpisektore hauetakoak dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 7,6), *Altzarigintza* (% 3,3) eta *Material elektrikoa* (% 3,0). Aldiz, sektoreko lehengaiak diren eta prezioetan jaitsierarik handiena izan duten produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusiak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa eta gasa*, % 26,5eko jaitsiera izan dute; *Petrolio finntzea*, % 26,1ekoa; eta *Zuraren eta kortxoaren industria*, % 14,1ekoa.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Iraila 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	7,6
Zuraren eta kortxoaren industria	-14,1
Petrolio finntzea	-26,1
Industria kimikoa	0,9
Kautxua eta plastikoa	0,5
Produktu mineral ez-metalezkoak	-7,5
Metalgintza	-1,5
Metalezko artikulak	1,1
Material elektronikoa	0,0
Material elektrikoa	3,0
Makineriaren fabrikazioa	1,0
Altzarigintza	3,3
Energia elektrikoa eta gasa	-26,5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Urriaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62